

USURBIL / Udalak Sutegiko wi-fi sarea kendu du erradiazioa murritzua asmoz

Azaroko Udalbatzan ahobatez hartutako erabakia da eta erradiazioa neurtu eta kontrolatu ahal izateko neurriak ere eskatu ziren

Udalak Sutegin zegoen wi-fi sarea kendu du. Aurrerantzean, hari bidezko konexioa erabiliko dute liburutegira bertaratzten direnek. Liburutegi orokorreko mahai bakoitzak prest du internet sarera konektatzeko kablea. Azken urte hauetan Europako zenbait erakundek erradiazio elektromagnetikoaren inguruan zenbait neurri hartu ditu. Izan ere, kezka sortzen ari da gai hau Europa mailan. Ikerketen eta adituen arabera, erradiazio mota batzuk neurri gabe igortzen dira eta minbizia eragin dezaketela nabarmen geratu da.

Usurbilgo Udalak, 2012ko azaroaren 22an, aho batez onartu zuen erradiazio elektromagnetikoaren inguruko mozioa. Besteak beste, erradiazioa neurtu eta kontrolatu ahal izateko neurriak eskatu zituen eta Europako erakundeetatik datozen zuzentaraauak bere hartu zituen.

Duela gutxi erradiazio elektromagnetikoa eta osasuari buruzko hitzaldia eskaini zuen Potxoenean Pepe Rivadeneyra ingurumen zinegotziak. Udalak, baita ere, erradiazio mota honek sor ditzakeen kalteak azaltzen zituen eskuorria banatu zuen etxeetan. Besteak beste, gai honen inguruko zenbait gomendio ematen ditu Udalak.